


# Durango 1936

Egia / Justizia / Ordaina

Durango 1936 Kultur Elkartearen urtekaria · 4. zenbakia 2023ko martxoan · 2€



JOSU RETES ZAMALLOA

Gorpu bat  
bidearen erdian

LEHERGAILUAK APATAKO  
GAZTELEKUREN ETA  
DURANGOKO GURE KABIYAREN  
KONTRA

"¿CONOCE USTED AL  
CAPITÁN HIDALGO?

Elkarritzeta:  
Marisa Barrena



Durango 1936  
Kultur Elkarte

**04**


**LA GUARDIA CIVIL EN CATORCE INSTANTÁNEAS**



**14**

**JOSU RETES ZAMALLOA**

Gorpu bat bidearen erdian



**04**

**LEHERGAILUAK APATAKO GAZTELEKUREN ETA DURANGOKO GURE KABIYAREN KONTRA**



**18**

**LEHERGAILUAK APATAKO GAZTELEKUREN ETA DURANGOKO GURE KABIYAREN KONTRA**

**28**

**“¿CONOCE USTED AL CAPITÁN HIDALGO?”**

Elkarrizketa:  
Marisa Barrena



**34**

**BOLETÍN DE NOTICIAS DEL PAÍS VASCO**

Texto:  
Juan Mari Arregi



**36**

**LA FOSA COMÚN DEL BOMBARDEO DE DURANGO**

Entrevista:  
Jimi Jiménez



**42**

**LORENZO GAZTELUMENDI BILBAO**

Texto:  
Jon Irazabal Agirre



Azaleko argazkia: **Josu Retes Zamalloa**

Argazkiak: **Zaloa Fuertes** (18-33, eta 36-39 orrialdeak)

Testuak: **Durango 1936 Elkartea**

Juan Mari Arregi (34 orrialdea), Jon Irazabal (42 orrialdea)

**Durango 1936 Kultur Elkartea**


Pinondo kalea 1, 48200 Durango

[www.durango1936.org](http://www.durango1936.org)

durango1936@durango1936.org

Maketazioa: **Anboto Komunikabideak - Gertuko Koop. S. Gizarte Ekimenekoa**  
LG. 1696-2018

Laguntzailea: **DURANGO**  
Garena eginez Vivir y convivir



## Hidalgoren Brigadilla

Durango 1936 Elkartea argitaratu duen 4. ale honetan irakurleak gerra garaiko kontuekin lotutako bi artikulu aurkituko ditu. Bata, Lorenzo Gaztelumendi durangarrak gerran eta Frantziako erresistentzian eginiko ibilbideaz. Bestea, Durangoko hilerrian martxoaren 31ko bombardketen ondorioz hobi komunetan ehortzitakoena eta euren senideen identifikazioa lortzeko egindako ikerketaz.

Edozelan ere, aldizkariaren gai nagusiak joan den mendeko 60 eta 70eko hamarkadara garamatza. Burgosko prozesuaren garaian (1968-1970) guardia zibilak informazio taldeak antolatu zituen Euskal Herrian zehar, hazten eta hedatzen ari zen askatasunaren egarria geldiarazteko eta itotzeko. Beldurra, izua, galdeketa, tortura, kartzela, zigorrak eta isunak ziren euren tresnak eta, zenbaitetan, gaur egun oraindik ere argi aipatu ezin litezkeen beste zenbait. Kontuan izan behar dugu diktadura ankerraren menpean bizi ginela, eta sarri gertatzen zela poliziakoek harreman estua izatea eskuin muturreko taldeekin ekintzak antolatzeko (hilketak, mehatxuak, bonbak jartzea eta abar), edo haien egindako ekintzak estaltzeko.

Gernika, Mungia eta Durangoko ingurueta Hidalgo kapitaina izan zen errepresioaren burua. Durangorri da gokionez, haren kolaboratzaile estuak eta kolpatzeko eskuak, kalekoz jantzita ibili ohi ziren Brigadillako kideak ziren: Moro, Anta, Mena, el Rubio eta El Cabo gaitzizenez ezagunagoak. Garai haietako paisaiaren parte bihurtu ziren, ikararen eta errepresio gordinenaren ikur.

Orrialdeotan hainbat lagunek pairatu eta bizi izandakoa irakurriko duzu. Hori ere memoria historikoa baita. Latzak bizi izan zituen herri baten historiaren beste atal bat, norbanakoen azal, hezur eta gogoetatik iragazita kontatua. Azpimarratu gura dugu halaber, hemen jasotakoa gertatutakoaren testigantza bilketa txiki bat baino ez dela, Durango 1936 Elkartea batu dituen lekukotasunetik jasotakoak, gehienak.

1977an guardia zibilaren errepresio sistema aldatu, berritu, sofistikatu eta gogortu egin zen. Brigada horiek Euskal Herriko herrietatik atera egin zitzuten, euren eginkizuna betetzeko ezgauza zirela iruditu zitzaielako edota, gogorrago ekiteko bestelako moduen alde egin zutelako, ziurrenik.

Badakigu orrialdeotan kontatzen dena baino askoz gehiago eta gehiagotan aritu zirela Hidalgo eta bere Brigadilla Durangaldean euren marka uzten. Badakigu askoz ere herritar gehiagok sufritu zutela horien jazarpena. Lerrokatik, deia egin nahi diogu bere lekukotasuna eman nahi duen edozein herritarri gurekin harremanetan jar dadin, guzton artean ahalik eta kontaketa zabal eta sakonena osatzeko.

Garai horretako errepresioa jasan zuten guztiak ere EGIA, JUSTIZIA eta ORDAINA merezi dutelako. Guk hori zor diegulako, bide hau jorratzea ere erabaki dugu.



# LA GUARDIA CIVIL EN CATÓRCE INSTANTÁNEAS

## (Durangaldea, 1968-1978)

Guardia Zibila Euskal Herrian, memoriatik ezabaezina askorentzat. Kontrolak, mehatxuak, atentatuak eta jipoiak, frankismoan zehar baina gero ere, luzaroan. Beldurra, izua, galdeketak, torturak, kartzela... Bizkaiko zati handi batean Hidalgo kapitainak mugitzen zituen trikorniodunen hariak. Haren aginduetara aritzen ziren Durangaldean hain ezagunak ziren Brigadillako kideak: *El Cabo, El Moro, Anta, El Rubio...*

Pasarte hauek tristuraz, umorez, lasaitu ondoko sentsazioarekin edo oroiminez gogora daitezke denboraren joanean. Baina, Durangoko kuarteleko aldapatik, lurralte okupatuaren itxura izango du beti Durangalde guztiak.



## 1 JESUS AGIRREAREN AUTOA

1968aren abuztuaren hasieran, ETAk hil zuen Melitón Manzanas torturaztale ospetsuaren hiletaren hurrengo goizaldean, 2:00ak inguruan, kotxea erre zioten Durangoko Jesus Agirre Lazkanori.

Etxean lo zegoen Jesus, eta herriko aguazilek jakinarazi zioten. Kalera atera eta kotxera hurreratu zenean han zeuden Amorrortu alkatea, aguazilak, Guardia Zibilaren tenientea eta hainbat Guardia Zibil.

Tenientea galdetzen hasi zitzaiion Jesusi ea koxea egoera onean utzi zuen, ezer arraroa igarri zion aparkatu orduko. Amorrortu alkateak eten arte:

– Está claro que le han quemado el coche, no ha sido una avería.

Jesus Agirre eta bere senideak ezagunak ziren Durangon erakusten zuten euskalduntasunagatik. Arreba Maite fitxatu egin zuten hilabete batzuk lehenago Andra Mariko elizan Txabi Etxebarriaren alde meza bat ateratzearren. Guardia Zibilen teniente hori aitarengana joan zen meza enkargatu eta hurrengo egunean alabaz galdezka.

Gero, 1969an, Maite Agirre atxilotu zuten eta, Indautxutik pasatu ondoren, hilabete pare bat egin zituen Basauriko kartzelan. Kartzelako hilabeteak baino larriagoak egin zitzazkion Maiteri Indautxuko egunak, mehatxuengatik eta presioarengatik.

## 2 Y TÚ QUÉ?

Los del barrio Matadero de Durango venían participando en los desfiles de carrozas de las fiestas de San Fausto de Durango, y los años anteriores habían ganado algunos premios. Para el desfile de 1970 decidieron presentar una carroza con la problemática de Palestina, ya que por entonces el Frente de Liberación de Palestina, que luchaba por la libertad de su país, había secuestrado un avión y lo había aterrizado en el desierto, reclamando la libertad de numerosos presos palestinos.

La carroza del Matadero simulaba un avión y guerrilleros árabes. Dos de ellos caminaban por delante de la carroza con una pancarta en la que se leía:

*NOSOTROS LUCHAMOS POR UN PUEBLO LIBRE.  
¿Y TÚ QUÉ?*

Tras salir de Ezkurdi y pasar por delante del Pórtico de Santa María, 4 efectivos de la Guardia Civil

pertenecientes a la Brigada de Información de Durango les quitan la pancarta y les llevan detenidos al cuartel de la Policía Municipal, donde les interrojan sobre el significado de la pancarta, en concreto sobre la expresión “¿Y tú qué?”

Dos días después, a las 7 de la mañana la Guardia Civil ocupa el barrio del Matadero y detiene a los hermanos Imanol, Kepa y Mikel Olabarria. En el cuartel son interrogados separadamente sobre la pancarta de la carroza. Imanol y Mikel son puestos en libertad y Kepa queda detenido, aunque no había participado en la carroza. Sus hermanos supieron posteriormente que el Guardia Civil Mena había detenido en un control rutinario a dos conocidos de Kepa de Otxandio, y que estos habían dado el nombre de Kepa. Kepa estuvo preso algunos años, hasta 1973, en las cárceles de Basauri, Jaén y Pontevedra.



## 3 ¿QUIÉN OS HA HECHO ESO?

En primavera del año 1971, tras el Aberri Eguna, un grupo de jóvenes durangueses fueron detenidos por la Guardia Civil acusados de repartir octavillas firmadas por el grupo político Komunistak reclamando el derecho de autodeterminación para el Pueblo Vasco.

Fueron detenidos de madrugada, sacados de sus casas y llevados al cuartel de la Guardia Civil de Durango, donde, en palabras de uno de los detenidos, recibieron una “calurosa bienvenida”. Manolo Lozano recuerda que, sin hacerles ningún interrogatorio previo, ni siquiera una sola pregunta, les golpearon durante toda la noche con las manos y con una especie de tubo manguera de butano. Incluso sufrieron intentos o simulacros de ahorcamiento. La paliza que recibieron fue terrible, y las secuelas de tortura costaron en desaparecer.

Por lo visto, la brigada de información de la Guardia Civil había sorprendido a algunos de ellos arrojando octavillas. Por la mañana les hicieron firmar una declaración escrita de culpabilidad y les trasladaron al cuartel de la Guardia Civil de La Salve de Bilbao, de donde fueron conducidos al día siguiente al Juzgado de Bilbao.

Recuerda Manolo que el juez que les tomó declaración, viendo su estado físico y el de al menos dos de sus compañeros, les preguntó:

– Esto, ¿quién os ha hecho eso?

Optaron por no denunciar las torturas recibidas, por miedo a que la respuesta de la Guardia Civil fuera aún peor, como habían escuchado que había sucedido en otras ocasiones.

Sin embargo, no quedó ahí la cosa. Al parecer, el juez, por su cuenta, denunció el estado físico de los detenidos, y esta denuncia tuvo varias repercusiones. La Guardia Civil realizó un informe en el que decía que los golpes no se habían producido en el cuartel de Durango, que en el momento de la detención ellos ya habían observado el mal estado físico de los jóvenes.

Después de pasar un par de meses en la cárcel de Basauri en prisión preventiva, salieron en libertad provisional. Cuando le llamaron a presentarse para el juicio, con una orden de busca y captura, decidieron presentarse directamente en el juzgado de Madrid, sin pasar por el cuartel de Durango. Fueron condenados a varios años de cárcel, que Manolo cumplió entre Carabanchel y Jaén.

Con Manolo Lozano, también estuvieron en la cárcel Julián Izaga, José Antonio Quincoces, Iñaki Arsuaga y Jose Ibarzabal. También el iruindarra Julián Mendiguren, que había sido profesor en los Maristas.

## 4 EL PROBLEMA ES QUE TODOS ESTAN FICHADOS

Uri Ruiz testigantza da hau:

Guardia Zibila atzean geneukan denbora guztian. Lagun batek alde egin zuen eta Guardia Zibila bere bila gure etxera etorri zen. Lau izan ziren: El Rubio, El Moro, Anta eta El Cabo.

Oso zainduak ginen. Denbora guztian genituen atzetik, eta guk ere paranoia genuen. Aguazilak ere atzetik genituen gu zaintzen. Ni Durangoko Amorrortu alkatearen gana joan nintzen ea zer nahi zuen nigandik galdezera. Oso nabarmena izaten zen atzean genituela batzuk eta besteak.

Oso gaztea nintzen, baina ordurako hasia nintzen politikan, eta vietnamita izeneko eskuz eginiko tresna batekin panfletoak egin eta zabaltzen genituen.

Gure etxera etorri zirenean, ahal izan genuen moduan ezkutatu genituen paperak. Hala ere, jendeak oso ondo jokatzen zuen gehienetan eta elkartasuna adierazten zigun, eta gauzak ezkutatzen lagundu. Guardia Zibilaren beldurra genuen denbora guztian.

Guardia Zibila oso gaiztoa zen baina oso ignorantea ere bai. 1973 urtean izango zen, El Caborenga-

na joan behar izan nuen gidatzeko baimena atera ahal izateko. Ni orduan Ikastoletako koordinatzalea nintzen eta batetik bestera ibiltzeko kotxerik ez nuenez, sarri autoestopez ibiltzen nintzen, eta jakina, guardia zibilak ikusten ninduen. Gidatzeko baimena atera ahal izateko ziurtagiriaren bila joan nintzenean, El Cabok galdeku zidan ea non egiten nuen lan,

– En la ikastola Bihotz Alai de Santurce, que está en la calle Juan XXIII.

Ez zuen jakin nola idatzi XXIII, eta nik disfrutatu egin nuen ezjakintasun haren aurrean.

Esango nuke ez zirela ezertaz enteratzen. Norbait atxilotuz gero, haren agendan zeuden telefono guztiak jasotzen zituzten. Niri Santanderreko guardia zibil batek esan zidan behin:

– El problema que tenemos en Euskadi es que todos están fichados.

## 5

## MUNDO OBRERO

Antonio Cabello, un militante comunista, cuenta que un día fue al Centro Extremeño a tomar un café y se encontró en la puerta con el cabo Cuevas y con El Moro, que le invitaron a sentarse con ellos y a jugar a cartas.

La cuestión es que él llevaba en el cuerpo un montón de números de la revista Mundo Obrero, que era el boletín del PCE, y para ocultar el montón de revistas iba vestido con una gabardina a pesar de que no hacía frío.

Los guardias civiles le preguntaron que qué le pasaba, y él, a pesar de que sudaba y casi no podía aguantar de calor, les respondió que estaba resfriado y sentía frío.

La partida de cartas duró unas dos horas, que a Antonio le parecieron eternas.

## 6

## "HIDALGOTAR IMANOL NAZ"

Guardia Zibilaren Informazio Brigadako bi, El Moro eta El Rubio gaitzizenez ezagutzen genituenak, gure etxera etorri ziren 1973ko igande arratsalde batean. Gure amama bakarrik zegoen etxearen eta ez zien sartzen utzi. Eskaineran egon ziren hainbat ordu gure gurasoak etorri arte.

Nitaz galdeku zuten eta etxea arakatu zuten, ezer susmagarri aurkitu barik. Gure amamak ondo gorde zituen zenbait paper eta liburu, nireak eta nire aitarenak. Bain alde egin aurretik, gure aitari kuartelera joan beharko nintzela jakinarazi zioten.

Etxera heldu nintzenean aitak gertatutakoa azaldu zidan eta kuartelera joateko konbentzi-

tu ninduen. Gauaz heldu nintzen, beldurrak jota. Egundo ez zait ahaztuko guardia zibil haren euskarazko aurkezpena:

– Hidalgotar Imanol naz, Gernikako kapitana.

Beldurra areagotu zitzaidan hitz horiek entzutean.

Hidalgo, Gernikako capitaina, berehala jabetu zen, galdeketa laburraren ostean, nik ez nuela zerrrikusirik kontu hartan. Ez ninduten jo, ezta mehatxatu ere, baina beldurra bai ez nuela gainetik kendu.



Galdeketan zehar beste kontu bitxia gertatu zen. Gure etxea miatu zuten bi guardia zibilek gela sartu eta nik entzun ez nuen zerbait esan zioten Hidalgori. Kapitana haserretu zen, eta umore txarrez, nik entzuteko moduko hitzkin bota egin zituen gelatik modu txarrean. Buru makur atera ziren, atzetik Hidalgo, eta honek neuri begira esan zidan:

– ¿Cómo crees tú que con unos inútiles como estos yo pueda hacer un trabajo decente?

Esan beharra dago, sekreten brigadako kideak ez zirela gehiegi enteratzen. Mundu guztia ezagutzen zutela pentsatzen genuen, baina ez zekiten bakoitzaz zertan genbiltzan. Gu, jakina, haietaz batera beldurtzen ginen, arrazoiarekin, lagunak mehatxatu, atxilotu eta torturatu egin zituztelako.

Errepresio faxistaren ikur izan ziren Durangaldean 70eko hamarkadan.

## 7 INKONTROLATUAK

Josu Retes Zamalloa gazte ezaguna zen Durangon. Familia abertzalekoa, Servisa gainean zegoen Club Juvenileko sustatzaileetakoia izan zen, eta Jesuitekako Bibliotekan egiten zuen lana. Behin baino gehiagotan izan zituen arazoak Informazio Brigadako guardia zibilen susmoengatik.

Josuk bazuen ezaugarri bat: bakarrik paseatzea gustatzen zitzaion, berdin egunez liburu bat be-sapean, edo arratsez hara edo hona. Neguko gau batean, 1975eko Errege egunaren bezperan, gaur egun Askatasuna Etorbidea deitzen den kalean, ezezagun batzuk gainera etsori zitzaizkion, eta jipotuta utzi zuten kalean.

Josu koman egon zen luzaroan Gurutzetako Ospitalean. Bizitzeko itxaropen gutxirekin hasieran, baina, hilabeteak igarota, Ospitaletik atera zen, elbarri. Ez zen egundo bere onera etsori, baina biziraun zuen, eta urtetan ikusi genuen bakarrik Durangoko kaleetan barrena errenka paseatzen.

Ospitalean izan zen bitartean Guardia Zibila egunero joan zen medikuengana bere egoera jakiteko. Garai hartan Durangoko alkate zen Amorrortuk ere bisitak egin zizkion eta amari aholkatu ez zuela merezi bere semearen egoeraren errudunak nor izan ote ziren ikertzen aritzea.

Josuk berak ez zuen gertaeraren inguruan inoiz inorekin hitz egin, eta ez da sekula agertu lekuorik, baina inkontrolatuen gauzatzat hartu zen orduan.

Inkontrolatuak deitzen ziren. Eufemismo hori erabiltzen zen, guardia zibilez eta ultranacionalista espanolez osaturiko matoi taldeak. Guerrilleros de Cristo Rey, Triple A, Batallón Vasco-español eta halako izenekin errebindikatzen zituzten euren erasoak batzuetan. Beste batzuetan, Josu Retes kasuan bezala, ez zen egon errebindikaziorik.

## 8 ALIANZA APOSTÓLICA ANTICOMUNISTA

1975eko apirilaren 25ean Estado de excepción ezarri zuen Espainiako Gobernuak. Lehendik giza eskubide gutxi, harrezkero gutxiago.

Maiatzaren 11n ezezagunek Elorrio eta Arrasate artean zegoen Kanpanzarreko Etxabetarren taberna metrailatu zuten.

Maiatzaren 11n baita, Elorrioko baserri bat ere tirokatu zuten, bertan osaba-izebekin elorriar gazte abertzale bat bizi izan zelako aurreko hilabeteetan. Une horretan preso zegoen kartzelan. Egun berean Guardia Zibilek Atxondoko bernastarren etxea miatu zuten, armen bila ari zirelako aitzakiarekin.

Maiatzaren 12an bernastarrek Apatan zeukaten Gazteleku tabernara heldu ziren Guardia Zibilak gaueko 11:00ak aldera eta hustu egin zuten, taberna ixteko ordua zela esanez.

Taberna aurrean bizi ziren bernastarrek arduraz bizi izan zuten gaua, Guardia Zibilaren brigadillakoek kotxeak etengabe aritu zirelako gora eta behera, euren etxearen eta tabernaren artean dagoen kalean zehar, harik eta gauerdiko 1:30ak inguruan ez-tanda entzun zuten arte.

Gazteleku taberna txikitu egin zuen bonba batetik. Eztanda egin eta ordu erdira heldu ziren berriro bertara Guardia Zibilak, tabernakoek inolako abisurik eman barik. Gutxira, Hidalgo kapitaina heldu zen, eta lekua miatu ondoren zera esan zion Enrikeri:

-¿Quiénes fueron anoche los últimos en abandonar el bar?

Erantzuna argia izan zen:

- La Guardia Civil.

Egun berean, beste leherketa bi gertatu ziren. Bata, Durangon, Goienkaleko *Gure Kabiya* tabernan. Besteak, Mundakako Atxurra tabernan.

Egunetara, zenbait kazetatan Triple A delakoak hartu omen zituen ekintza horiek bere gain. Alianza Apostólica Anticomunista.

Geroago, 1975eko urriaren 5ean Kanpazarreko gainean hiru lagun armatuk Iñaki Etxabe arrasta-tearra tirokatu eta hil zuten, Juan Jose Etxaberen errefuxiatuaren anaia, Triple A berak errebindikatu zuen hilketa. 1978ko uztailaren 2an, Triple Ak errebindikatu zuen Agurtzane Arregiren hilketa, Donibane Lohitzunen, Agurtzane Arregi Juan José Etxaberen emaztea zen. Biak zihoazen autoz, eta Juan José Etxabe larri zaritu zuten.

## 9

## INFORMAZIO BRIGADA

1975eko ekainaren 11n greba orokorra deitu zen Euskal Herrian, Estado de excepción delakoaren erdi-erdian. Grebaren deitzaileek 100.000 grebalaritik gora zenbatu zituzten.

Gogoan izan behar dugu garai harten faxismoak ustezko ETAko eta FRAPeko ekintzaileen aurkako epaietak antolatu zituela eta hainbat heriotza zigor eskatzen zituela. Geroago, irailaren 27an, epaiketen ondoren, FRAPeko 3 ekintzaile eta ETAko bi fusilatu zituzten: José Humberto Baena, José Luis Sánchez Bravo eta Ramón García Sanz FRAPekoak eta Juan Paredes Manot 'Txiki' eta Ángel Otaegi.

Grebaz gain, amnistiaaren aldeko manifestazioa antolatu zuten Durangoko alde zaharrean zehar.

Manifestazioan egon zen lagun batek, antolatzaleetako batek, gogoratzen du ez zirela 100 lagun batu Guardia Zibila etorri arte eta manifestariak barreiatu baino lehen. Baino errepresioa gogorra izan zen eta, egun haietan, dozenaka eta dozenaka gazte eta heldu atxilotu, kuartelera eroan eta bertan galdekatu eta torturatu zituzten.

Atxilotuak ehundik gora izan zirela dioenik ere bada. Hainbat torturatuk jasandakoa oso latza izan zela baiezta digute, gainera, egunak egin baitzituzten kuarterean. Halere, manifestazioaren deitzaileetako batek, irribarrez, Guardia Zibilaren informazio brigadaren eraginkortasuna zalantzan jarri du, deitzaileetako bat ere ez zutelako atxilotu.



## 10 SI QUIERES, PUEDES HUIR

Periko fue detenido en junio de 1975 por la Brigada de Información de la Guardia Civil de Durango. Había participado en las movilizaciones por la amnistía, en contra de la represión y por la libertad que se organizaron en Durango en torno a las penas de muerte que se habían solicitado para Txiki, Otaegi y para varios miembros del FRAP. Se había decretado el Estado de Excepción en Vizcaya y Guipúzcoa el 25 de junio, y la reacción fue organizar movilizaciones en contra. Periko recuerda que en Durango se realizaron numerosos cortes de calles con barricadas en Madalena, Kurutziaga, Kalebarria, etc.

La Brigada de la Guardia Civil registró su casa, y en el registro su hermano pequeño pudo ver como la Guardia Civil colocaba unos panfletos debajo de su cama.

Después fue conducido al cuartel de la Guardia Civil, donde le interrogaron. Le enseñaban fotografías de durangueses y él en una hoja en blanco

debía de escribir de qué les conocía y las relaciones que tenía con ellos. Le “zurraron” mucho, pero los guardias civiles que le torturaron no fueron los de la Brigada de Información. Tras las sesiones de tortura entraban a interrogarle los miembros de la Brigada de Información que hacían el papel de “polis buenos”. Incluso le dejaron una pistola encima de la mesa y le decían:

-Si quieras, puedes huir.

Periko recuerda que junto a él fueron detenidas docenas de personas: Txema Belar, Goio Olabarria, Sabin Asategi, Abasolo de Abadiño, etc., y que a algunos, por falta de espacio, los llevaron al cuartel de la Policía Municipal.

Hizo 10 días detenido entre torturas y amenazas. Luego fue trasladado a la cárcel de Basauri, donde permaneció 3 días y le realizaron una ficha policial que posteriormente le causó problemas en el servicio militar.

## 11 PROPAGANDA ILEGAL

Marisa Barrena emakume gaztea zen 1975eko uztailean. EHAS, Euskal Herriko Alderdi Sozialista alderdiko kidea zen. Gau batean, Durangon izandako alfabetatze saio batetik etxerako bidean zohoala Guardia Zibilak atzean zituela konturatu zen. Baserrira heldu eta aldean zeramatzen panfletoak suntsitzen ahalegindu zen arren, denak ezin izan zituen desegin edo gorde guardia zibilek atea jo orduko. Etxea goitik behera miatu zuten eta boletín baten 3 ale ezberdin aurkitu zituzten. Etxean hasi zitzaizkion galdezka zelan eskuratu zituen boletinak, nork eman zizkion.

Zornotzako kuartelera joan arazi eta, bere koxean abiatu zen aita alboan zuela eta guardia zibil bi atzeko jarlekuetan. Kuarterlean, aita etxera bidali zuten eta bera barrura. Hala ere, bere kotxe gorria kuartelaren aurrean utzi zuen, han zegoela jabetu zitezen lagunak.

Kuartelera sartu ahala guardia zibil batek galdetu zion:

-¿Conoce usted al capitán Hidalgo?

-No -erantzun zuen berak.

Bera zen eta:

-Pues ahora lo va a conocer -esanez, bi belarriondoko jo zizkion Hidalgok eta lurrera bota zuen ziplo.

Gogoan du belarritakoak ere erauzi zizkiola. Jarreraian hasi ziren kolpeka eta galdezka hiru gizon, berak Durangoko kaleetatik ezagutzen zituenak: El Moro, Anta eta El Rubio gaitzzenekin.

Pasilloa egin zioten jotzen zuten bitartean. Ondoren begiak eta ahoa tapatu zizkioten gantzon-tzilo zikin batekin. Mahai batean etzunda ipini zuten, burua ertzetik kanpoan zuela, eta kirofanoa deitzen den tortura egin zioten.

Adatsa zuen eta iletik tiraka aritu ziren min jasan ezina eraginez. Belaunetan, oinpeetan eta be-soetan ere jo zuten etengabe.

Begiak eta ahoa estalita, hiru gizon inguruan joka, beldurra sartu zitzaion hurrengoa zer izan zi-tekeen pentsatuz.

Hidalgoren bulegora eroan zuten galdeketa ja-rritzeko. Hidalgok zera esan zion, besteak beste: gogoa zuela bertan mahaigainean zuen hauts on-tzia aurpegiān hausteko.

—Como es Estado de excepción se puede pro-longar la detención hasta cuando me de la gana.

“Tortura sufritu ez duenak ezin du zer den ezta imajinatu ere. Mina, beldurra, inpotentzia, emaku-me bakarra izanik lau gizonek inguratua egotea, inoren mende eta ezer egin ezinik...” gogoratzen du Marisak.

Azkenean, etxearen aurkitu zituzten hiru aleak zenbakia desberdinak zirenez, ezin izan zioten pro-paganda ilegalaren leporatu eta aske utzi zuten.

Libre geratu arren, beldurra aldean eraman zuen luzaroan, biziaren latz eta gordina ezin ahaztuz. Tor-turaren lorratzak egunetan izan zituen, ubeldurak aurpegiān eta gorputzean. Etxeko atean zarataren bat entzutean edo kalean guardia zibilak ikustean iztu egingo zen luzaroan.

Adatsa ere moztea erabaki zuen, eta harrez gero bizitza guztian ile laburra izan du, eta ilerik gabe gune bat buruan, tiraka ileak atera zizkioten tokian.

## 12 JOSE GOÑI

1976ko udaberrian, Franco hil berri baina frankismoa indarrean zegoenean, Coordinadora de Euskadi de Comisiones Obreras, PCETik ezkerrera zeuden zenbait alderdik bultzatzen zuten erakundeak, Euskal Herriko ordezkarien asanblada ez-le-gala deitu zuen Durangoko Jesuitak Ikastetxeko frontoian, frankismoaren jarraipenari erronka bat jartzeko. Bi milatik gora ordezkari bildu ziren eta, Durango erdian izanik, Guardia Zibila presentatu zen bertan.

Antolatzailak kuartelera eraman zituzten, eta Hidalgo Kapitainarekin elkarritzaketa izan zuten. Ez zuten ez mehatxurik ez torturarik jasan. Bai, ostera, Hidalgoren gonbita Centro Extremeñon bazkal-tzuko.

Garai hartan, José Goñi zen Durangoko jesuite-tan erretoreoa. Babesa ematen zien herri mugimendu guztiei. Alfabetatzeko edo euskara ikasteko gau-eskolak, greban zeuden langileen batzarrak, alderdi klandestinoen bilerak, Benito Lertxundi lako abeslariak, zine erdi debekatu emanaldiak, abeslariak, lehenengo bertso eskola Xabier Amu-riza kartzelatik irten berri...

Guardia Zibilak kontrolatzen zituen kaleak eta bazter guztiak. Eliza hierarkikoa nazionalkatolizismo espanolaren zutabe nagusietako bat izan zen. Instituzio erraldoi horren barruan, Jose Goñiren moduko jendeak gordaleku ederrak eman zizkien askatasunaren aldeko borrokei.

## 13 "¡SE LA QUITAN Y SE LA COMEN!"

1976ko ekainean Gerediaga Elkarteak bultzatuta egunetako jaialdia antolatu zen Urkiolan euska-raren eta euskal kulturaren alde. Horretarako bat-zorde handi eta zabal bat eratu zen, jaialdietako ekintzak programatzeko eta aurrera eroan ahal izateko. Lagun askok parte hartu zuen azpiegitura kontuetan. Antolatzailak batek, Tiliñok, go-goan ditu, besteak beste, Mataderoko gazteak.

Euskal Herri osoko kantariak eta musika taldeak etorri ziren, eta jendea ere Euskal Herri osotik ber-taratu zen. Urkiola bete beterik egon zen. Halako batean, derrepentean, ikurrinak agertu ziren toki difereenteetan: eliza ondoan, landetan zein elektri-zitate sareetan zintzilik. Franco hil berri izan arren, ikurrina ez zen legala oraindik. Eta han agertu ziren segituan guardia zibilek Hidalgo kapitaina



buru zutela, ikurrinak kendu nahian eta ikurrinadunak harrapatu nahian.

Jende asko oihuka hasi zen eta giroa berotu zen. Guardia Zibilak tiroka hasi ziren eta brigadakoak jendearen atzetik. Ba hori, eskapatzeko, arineketaldi ederrak egin behar izan zituen jende askok.

Antolatzaileek beldurra pasatu arren, edozer gerta zitekeelako, azkenean kontua baretu zen,

nahiz zenbait lagunek kolpeak jaso, eta batzuk pegatinak irentsi behar izan guardia zibilek behartuta:

-¡Se la quitan y se la comen! -agindu zioten hainbat, eta sartu behar izan zuten ahora.

Ondoren, Gerediagako presidentea zena ere deitu zuten kuartelera.

14

## JESÚS MARI ARRAZOLA Y ALBERTO GARCÍA

Eran dos jóvenes obreros de la cuadrilla de San Fausto. Jesús Mari Arrazola tenía 19 años, y le llamábamos Txiki. Alberto García tenía 21 años, y le llamaban Russo.

El 11 de abril de 1978 fueron sorprendidos por la Guardia Civil, en Gernika, cuando iban a subir al coche Seat 850, matrícula BI-158.783, color gris oscuro. La Guardia Civil sabía que eran de ETA y los emboscaron.

Ruso hechó a correr hacia Durango. No llevaba la pistola en la mano, como dijo la versión oficial y algunos medios de comunicación, sino detrás, en la cintura. Le dieron un tiro por la espalda.

Txiki se escondió tras unos setos. Los vecinos que vieron los hechos contaron que tiró la pistola que llevaba por encima de una valla y, entonces, la Guardia Civil prácticamente lo fusiló. Un tiro le entró por debajo de la mandíbula y otra bala le entró por la suela del zapato hacia la parte superior del cuerpo.

El periódico El País tituló de “Tensión y disparos” en Durango:


“En la localidad de Durango -de donde eran naturales los dos presuntos etarras muertos en Guernica- pudo observarse un clima de gran tensión por la noche, con la casi totalidad de los bares cerrados”. A medianoche se celebró una asamblea

en el pórtico de la iglesia de Santa María, donde se informó de lo que había pasado en Guernica y se llamó a una huelga general para el día siguiente. “Los asistentes abandonaron precipitadamente la iglesia al oírse cinco disparos, cuya procedencia se desconoce.”

Al día siguiente los dos féretros llegaron a Durango y se rindió homenaje a los dos jóvenes. Tres años después de la muerte de Francisco Franco, casi todo el pueblo se unió para acompañarlos de la iglesia de Santa María hasta el cementerio.

Eran dos jóvenes obreros del barrio de San Fausto. La familia de Jesús Mari Arrazola Anía procedía de un caserío, él había empezado a trabajar con 13 años y, con 19, era soldador en una pequeña empresa de Tabira. “Solía fumar cigarros Celtas”. Había participado en reuniones clandestinas del PCE, Partido Comunista de Euskadi, y de MCE, Movimiento Comunista, antes de formar parte de ETA.

Alberto García Márquez era también obrero desde la adolescencia, y participaba en todas las movilizaciones antifranquistas. Era el menor de seis hermanos, pero el único que su padre había visto nacer, porque los anteriores habían nacido con Jacinto García preso. Alberto era hijo de un gudari, sargento del batallón Amuategui de UGT, de Eusko Gudarostea.



**Josu Retes Zamalloa :**  
**Gorpu bat**  
**bidearen erdian**



## PARTE FACULTATIVO

## LESIONES QUE PRESENTA

Traumatismo encefalo-craneal y conmoción cerebral. Fractura trompar parietal dcha.

## CAUSAS DE LAS LESIONES

Ha sido atropellado por un coche? - Fue encontrado en la carretera

## PRONOSTICO

GRAVE

1

2018. urtean zendo zen Josu Retes Zamalloa. Haren familiak egindako hil-oroi garrian horrela zioen: "1975eko urtarrilaren 5ean hil zuten. 2018ko martxoaren 10ean hil zen". Zer gertatu zen, bada, 1975eko urtarril hartan? Garaiko durangarrek gogoan izango dute *Inkontrolatuei* egotzitako gertakaria izan zela. Polizia ikerketak, berriz, bide eskas bezain laburra izan zuen.

1975eko urtarrilaren 5a. Zapatutik domekarako goizaldean, ordu biak aldera, Avenida del Generalísimo kalean (Askatasun Etorbidea gaur egun) autoa gidatzen zihoa gazte batek bidean trabes zetzan zerbait ikusi zuen. Autotik irten eta zaurituta zegoen gizonezkoa aurkitu zuen. Askatasun Etorbideko 8, 10 eta 12 atariak diren etxeak eraikitzen ari ziren orubea oholez hesitua zegoen eta paretsu horretan aurkitu zuen Josu Retes Zamalloa odol putzu batek inguratuta. Ezkurdi frontoitik zetorren bikote bat ere laguntzera hurreratu zen. Bikoteak udaltzain-goari adierazi zionez, gertatutakoa edozer izanda ere, denbora bat bazoan gizonak lurrean ze gorputza hotza zeukan. "Etxera, etxera..." esaten ei zuen, ia ez ulertzeko moduan. Gaztearen autoan sartu eta anbulatoriola eroan zuten. Handik Gurutzetako ospitalera, anbulantzian.

Josu Retes Zamalloa Durangoko familia abertzale batean sortu zen 1953an. Hiru senidetan gazteena, artean ume zela galdu zuten aita: Gabino Retes Garamendi Kirikiño Batailoiko gudarien kapitaina izana. Gurasoak jeltzaleak zituen eta euskara zen etxeko hizkuntza. Kristautasuna eta fedea oso era indartsuan bizi zuten etxeen. Familiako kide batek gogoratzan du Josuk ere bazuela kristautasunaren zera hori,

eta halako joera samaritar bat beti besteei laguntzeko. "Ikasketetan bultzada bat behar zutenei laguntzen aritzen zen. Zenbati ez ote zien lagundi ikasgaiak gainditzen! Emauseko trapuketariekin Toulousen...". Durango 1936 elkartea bildu dituen hainbat testigantzeak ere berresten dute ikasketekin lagundi izanarena. Bai berak eta baita 70eko hamarkadaren hasieran Du-

hasi zuen karrera baina familiako egoerak ez zuen ematen eta Sarrikon bukatzean zegoen. Haren expediente akademikoa harritzeakoa zen".

Jasotako beste testigantza batek 1974ko Sanfausto jaietara garamatza. Orkestra bat etorri zen Durangora eta emanaldiaren amaieran Gernikako Arbola interpretatu ei zuen. Entzuleen artean zegoen Josu, eta baita Durangoko alkate zen Amorrortu ere. Gernikako arbolaren lehenengo notak aditzera-koan, zutundu egin zen Josu, kantari halako ereserki balioa aitortuz. Haren ostetik hainbat entzule ere zutuntzen hasi ziren eta, hainbeste izan ziren non, Amorrortu alkateak bera ere zutik jartzeko premia sentitu zuela. Garaiko udaltzainen burua zena ere bertan zen eta ez zitzaion batere gustatu, ez Josuren keinua, ezta alkateari sortutako ezerosotasuna ere. Orkestak bere lanak bukatu zituen, Abarzuza udaltzain-burua kontu eske joan zitzaion Josuri, modu aski zakarrean, lekuoak adierazi digunez.

Jesuitetako ikaskide gazteagoek bibliotekan lanean gogoratzentz dute. Edo bestela, paseoan, beti libururen bat besapean. Bai baitzuen Josuk bere kasa ibiltzeko ohitura hori, egunez zein gauez. Ohikoaz kanpo-ko ohiturek arreta erakartzen dute

**"Denbora bat bazoan  
lurrean ze gorputza hotza  
zeukan. "Etxera, etxera..."  
esaten ei zuen."**

**"Ikasketetan bultzada  
bat behar zutenei laguntzen  
aritzen zen. Zenbati ez  
ote zien lagundi ikasgaiak  
gainditzen!"**

rangon Club Juvenil zeritzona antolatu zuten beste zenbait kidek ere. "Oso argia zen - jarraitzen du familiako kideak-. Ingelesa, frantseza eta alemanera zerbait ere ikasi zuen, modu autodidaktan. Irakurri, berriz, harrapatzen zuen guztia!". Karrerako azken ikasturtea egiten ari zen Josu 1975 hartan. "Deustun

1 Josu Retesen Gurutzerako ospitaleko asistentzia-partea (1975/01/08).

Hoy día 22, en la noche del 20 al 23 de noviembre de 1979, he estado saliendo a la calle después de ver la televisión o la radio. Il de la noche, he ido dando una vuelta hasta el punto de salida dirección instituto, he vuelto, y al volver he visto que Juan de la dirección política, le paseó de frente al frontón, y me he puesto a medir con para ver si ocurría lo que decía en la radio que 436,166 pesetas estaban faltando en la caja de la dirección política de la guardia civil de la policía, que ~~los~~ se ha encargado ~~los~~ de la caja de la ~~política~~ de la guardia civil de la policía, donde se ha hecho la declaración, y donde se ha declarado lo anteriormente ésto

2

eta Brigadillako Guardia Zibilak ere ezaguna zuten Josu. Afiliazio politiko ezagunik bakoa bazeen ere, ez zen sekretua abertzalea zena eta, Club Juvenil haren bueltan bildutako asko legez, ez zen zehazki, erre-gimenaren goresle bat. Aski arrazoi Brigadillaren jo-puntuaren egoteko.

Josuk berak eskuz idatzitako testu batean dio (2.argazkia) zelan 1974ko azaroaren 22tik 23ra bitarteko gauean paseatzera atera zen.urreta aldera jo eta han, frontoian zegoela, kalekoz jantzitako guardia zibilak agertu zitzazkion. Atxilotuta eta kuartelera eroan ei zuten de-

**“Modu batera edo  
bestera mehatxatua  
sentitzen zen”**

klarazioa hartzen. Familiako kideak dio ez dakiela Brigadillakoekin topo egin zuen lehenengo aldia ote zen. "Denbora bat bazeraman bere bai-tara bildu antzean. Kuartelera ez zuten Gabon! esatera eroango, diot nik. Berak ez zuen ezer kontatzen, ama larritu ez zedin, seguruenik. Modu batera edo bestera mehatxa-tua sentitzen zen. Nik kanpoan egi-ten nuen lan orduan eta, bolada ba-tez, gurekin etor zedin esan genion. Eta abiatu ere egin ginen. Gasteiz

parean ginela, elizgizona zen osaba batekin hitz egin gura zuela. Luze aritu ziren hizketan eta, amaitutakoan, Durangora itzuliko zela esan zigun. Nik uste dut bere buruari esan ziola, Zergatik egin behar dut ospa ezer egin ez badut?".

arrastorik ageri. Odol arrastoak, os-  
tera, gorputza aurkitu zuten lekuau  
ez eze, espaloian ere bistakoak ei  
ziren. Larri iritsi zen Josu Gurutze-  
tarra eta inork ez zuen eskurik sur-  
tan paratuko aurrera egingo zuela  
esanez.


## **Gurutzetako ospitalean: “Pronóstico: grave”**

1975eko urtarrilaren 5eko goizaldean Gurutzetako ospitalean sartu zuteneko medikuaren parteak halaxe dio: (1.argazkia) "LESIONES QUE PRESENTA: traumatismo encefalo-craneal y conmoción cerebral. Fractura trompar (sic) parietal dcha. /CAUSA DE LAS LESIONES: ¿Ha sido atropellado por un coche?- Fue encontrado en la carretera. / PRONÓSTICO: GRAVE". Durangoko udaltzainek tokian eginiko txostenak jasotzen du errepidean ez dela ezelako autoren balatzatzearen

Bertsio ofizialak auto batek harrapatu zuela zioen. Durangon, garai hartan ohikoak ere baziren Inkontrolatuen ekintza izan zelako ustea zabaldu zen. Eta ez ziren etxekoak eta lagunak Josuren osasun egoeraz kezkatuta zeuden bakarrak, antza. Ingresatu eta hil ala biziko egoeran zegoela Guardia Zibilak egunero jakin gura izaten zuen haren mediku partearen berri. Amorrortu alkatea birritan ere joan zen bisitan Gurutzetara, bertan zen familiako kide batek bota zion arte: "Noiztik joaten da Durangoko alkatea trafikoko istripu bat izan duten durangarrak bisitatzera ospitalera?". Ez zen

mo a la construcción de viviendas, las cuales sobresalen 1,42 metros del bordillo de la acera, con 44,85 de longitud, la calzada se encuentra húmeda debido a la niebla, no se aprecia huella de frenada de vehículo, midiendo la galvana de las tablas al bordillo del frente 17,50 metros, a la distancia de 0,55 a las mismas y a una longitud de 4,90, se observa una huella de rastreo, donde aparece la huella de sangre a un metro del bordillo y a 2,90 de distancia de las tablas, otra con una separación de 0,85 a la anterior y a 1,85 del borde de la acera la cual mide una anchura de 3,55 metros, debido a la obra queda 1,95 frente a las huellas de sangre, junto a los bordes de la aceras pares e impares, está autorizado el estacionamiento de vehículos ocupando estos una anchura de calzada de 4.10 tro

11



4

- 2** Josuk eskuz idatzitako testua.

**3** Durangoko udaltzainen polizia-atestatua.

**4** Josuren gorpua non aurkitu zuten azaltzen duen krokisa (Durangoko udaltzainen polizia-atestatua)



5

erantzunik izan. Areago, alkate horrek berak ez zuen familia animatu Josuri gertatutakoaz ikertzen jarritzera, "EZ du merezi".

Josuk ia urtea egin zuen Gurutzetako ospitalean. Garunean eragindako kalteak handiak izan ziren. Gorputzaren zati handi bateko mugikortasuna galdu zuen eta neurologikoki kaltetua geratu zen. "Hainbat ospitale eta psikiatrikotatik pasa zen, baina etxeen zaindutzen. Bazituen egun on antzekoak, baina bere egoera oso ezezonkorra zen eta zernahi motibogatik desorekatzen zen. Eskatu ere ez genuen egin, baina laguntzarik ere ez genuen jaso".

Gertatutakoaren ikerketaz galdeztuta, " Ez zegoen ebidentziarik eta gutxiago ikertzeko borondaterik. Inork ez zuen ezer ikusi, ez zegoen lekukorik... Uriak zera esan zuela, berendiak hurrengoa... Usteak baino gehiago zirenak ere baziren, bai-

na epaitegira joan eta "Horrela gertatu zen" esateko modurik ez. Eta beldurra ere bazegoen. Ez dezagun ahaztu 1975a zela oraindik. Josuk berak ere ez zeukan ezeren akordurik, gaia atera izan genion apurretan hala esaten zuen behintzat,

### ***“Familiak egin zituen gertatua argitzeko saiakerak baina ezerezean geratu ziren guztiak”***

eta ez zion onik egiten". Ebidentzia judzialik ezean bere iritzia eskatu diogu. "Iritzia? Lehenago aipatutako guardia zibil horiek izan ziren? Eurekin konpontxo eginda aritzen ziren eskuin-muturreko jendea? Nire ustea da pasada bat ematen hasi eta eskuetatik joan zitzaiela. Frogatu dezaket? Ez".

Josuren familiak egin zituen gerora ere gertatua argitzeko saiakerak baina, bateko kasua artxibatu egin zela, besteko preskribatuta zegoela, ezerezean geratu ziren guztiak. Erakundeen edo Durangoko herriaren aldetik ezer nahiko luke-ten itaundu diogu familiako kideari. "Orain? 1975ean gertatu zen gertatu behar ez zuena, baina Josu 2018an hil zen. Ez dut nik esango honetaz hitz egin behar ez denik, baina 43 urte egon ziren Josuerenkin, haren etxe koekin, gogoratzeko. Orain...". Tonu etsia eta minetik baino penatik gehiago duen hausnarketa. Eta, hala ere, esan beharra dago ez dutela erabat etsi. EAEko legebiltzarrak bortizkeria poliziala ikertzeko sortu zuen batzordean egin zuten Josuren kasua ikertu eta biktimatztat onartzeko eskaria. Lerrook idazterako orduan ikerketa zabalik dago baina auzia aspaldi artxibatuta eta hitz egin zezaketen aho asko itxita.

# **Lehergailuak Apatako Gaztelekuren eta Durangoko Gure Kabiylan kontra**

## ***Musika zeinek jarri***

1975eko maiatzaren 13ko goizaldean lehergailu bana jarri zuten Apatako Gazteleku eta Durangoko Gure Kabiya tabernetan. Bi orduko tartean gertatu ziren atentatuok eta argi dago talde berak egindako ekintzak izan zirela. Atentatuok garaiko eskuma muturreko taldeek aldarrikatu zituzten, baina egile zuzenak zirenak zirela ere, Durangoko Brigadillako kideak ez zebiltzan urrin. Salbuespen egoera zegoen ezarrita Bizkaian eta Gipuzkoan apirilaren 25etik gehiago. Diktadurak bere musika jarri nahi zuen baina herriak bestelako doinuak zerabiltzan gogoan.







## "Urtetan azkena"

Itziar Bernasen gurasoek 1968an zabaldu zuten Gazteleku taberna Apatan, eta bertan jardun zuen lanean hasieratik gehiago. 1975eko maiatzaren 13ko goizaldean jarri zuten lehergailua baina Guardia Zibilaren presioa eta akosoa aspaldiko kontua ziren Bernastarren familian.

"1968ko Gabon egunean zabaldu genuen taberna. Udalak idazkarientzako garaje bat zeukan hor, baina Axpeko tipo batek lapurretan egin zuen udaletxean eta, hark utzitako zuloa tapatzeko, salgai jarri zuen garaje hori udalak. Gure amak salgai ikusi zuenean, erosi egin zuten taberna jartzeko ideiarekin. Gero, ondoko etxea eraiki zenean, jantokia izango zen lokaltxoa gehitu genion tabernari". Itziarrek ez dauka ahazteko 1968 hora, ze, urte hartan ikusi zuen estreinakoz ikurrina handi bat Urbian, Arantzazuko Amaren egunaren aitzakian egin zen konzentrazioan. Gipuzkoan "salbuespen egoera" zegoen ezarrita eta Arantzazuko eskoletan identifikatu zituztenei isuna ezarri zien Guardia Zibilak, "5000 pezetakoa guri. Ta-

bernako propinekin ordaintzen aritu ginen luzaroan".

Hidalgo kapitainaren aginduetara aritu zen brigadillaren ekintzen berri ikasi guran gabiltzala esan eta, beste askori legez, errenkadan da-

behin-edo, euren kapa handi eta bizikletekin. Aita ez zegoela etortzen ziren, egunez. Haiek zetozenean amak kortara bidaltzen gintuen. Guume, eta galdeztzen genion amari ea zergatik etortzen ziren gurera eta beste batzuetara ez. "Firmetan etorten dittun", amaren erantzuna".

### ***Berdekoan itzalak beti jarraitu izan zion Itziarren familiari***

tozkio izenak. "Anta, Morue, El Rubio eta El Cabo, ondo ezagunak denak". Baina guardia zibila aitatu eta Itziarren akorduak umezaroraino doaz, Arrazolako Ugo baserrira. "Gurera etortzen ziren guardia zibilak hilean

Itziarren aita, Enrike Bernas Zumelaga, eta ama Juanitaren neba bi (Jesus eta Bizente Mурgoitio Izamendi) gudari ibili eta zigor latzak pairatutakoak ziren. Aita Laredoko kontzentrazio esparrutik langileen batailoi diziplinarioetara bidali zuten, lan behartuetara. Osabek heriotza zigorraren mehatxupean bete zuten euren kartzelaldia. Beraz, berdezkoen itzalak beti jarraitu izan zion Itziarren familiari. Ez ziren



horregatik geldirik egonak. "Gerraostean gure baserrian gizon bat egon zen ezkutatuta, urteak egin zituela esango nuke. "Hau gorde eta etorriko da baten bat bile. Que no le falte de nada", esan ei zuten. Razionamentuarekin, ogi txuskoa egoten zen buruko eta gure amari zegokiona gizon harentzako izaten zen. "Zelan egongo nintzunan ba ni lodi?" esaten zuen gure amak. Pasatu zuten, halako batean, gizon hori Frantziara, gerora tuberkulosiagaz hil ete zan. Kontua da, behintzat, etxean esana zutela hari ezer ez zekiola falta eta etorriko zirela pagatzera. Gaur arte".

### **"Sarri-sarri izaten ziren bonba abisu faltsuak, zapatu gabetan askotan, jantokia jendez beteta geneukala"**

#### **Brigadilla hasieratik tabernan**

Memoriaren bideak ez dira beti zuzenak izaten, are gutxiago aurrez aurreko elkarrizketa batean. Sarritan, ate batek beste bat zabaltzen du, eta hark hurrengoa. Bernastarrek Apatako Gazteleku kotoa zabaldu zuten garaira gatoz berriro. "Nirekin fijazioa zeukanen, Antak eta Moroak, batez ere. Bonba jarri baino lehenagoko kontuak dira hauek, 1973-74 inguruoa. Tabakoa saltzen genuen tabernan eta bageneukan horretarako baimena. Kontua da, guk, beste guztiek legez, estankoko prezioari hainbateko bat kargatzen geniola. Ehuneko txiki baten barruan legezko zen hori egitea. Agertu ziren bada bi Guardia Zibilok. "Un Rossli" batak. "Un Farias", bestea. Eta kontratu nintzen harrapatu nindutela. Normalean kobratzen genuena baino gutxiago kobratu behar niela banekien, baina ez zenbat. Sei pezeta baziren, 5,50 eskatu nien, eta hala ere azertatu ez. Salaketa jarri zigutten eta tabakoa saltzeko baimena kendu bolada baterako. Eta, jakina, guk bazkariak eta afariak ematen genituen eta sasoi hartan kafe-



1

konpletoa hartzeko ohitura handia zegoen. Tabako barik ezin! Ez genuen besteek egiten ez zuten ezer egiten tabakoarekin. Baino gainean izango genituela eta gura zutenean izorratu ahal gintuztela adierazteko modua zen".

### **"Maiatzaren 12an etxera joan zitzaitzien guardia zibilak. Armen bila zetozela eta etxea errejistratu behar zutela esan zuten"**

"Horrek sekretok nahiko hasieratik ibili ziren hemen inguruau. Nabantzen. Sasoi batetik aurrera, sarri-sarri izaten ziren bonba abisu faltsuak, zapatu gabetan askotan, jantokia jendez beteta geneukala. Dei anonimoak izan ohi ziren. Taberna husten ez bagenuen erantzukizuna geurea izango zela eta horrelakoak. Lehenengoan estuago, eta gerora lasaiago, hustu egiten genuen taberna. Batzueta Guardia Zibilak agertzen ziren eta beste batzueta ez". Bonba mehatxu haiiek salatu egiten ote zituzten galde-tuta ezezkoa dio Itziarrek. "Zeinek esanda agertzen ziren orduan?". Egiterako ohartu gara galderaren absurdua.

### **Kanpazarreko ametrallamenduaz geroztik, alertan**

1975eko apirilaren 25ean, Abe-ri Egunarekin batera, Salbuespen egoera ezarri zuten Bizkaian eta Gipuzkoan. ETAren ekintzak, polizia indarren atxilotaka eta sarekada erraldoiak, eta talde parapolizialen atentatuak eguneroko ogia ziren. Maiatzaren 11an Etxabe anaiek Kanpazarreko gainean zuten jate-txeari metraileta tiroz eraso egin zioten (urte bereko urriaren 5ean tiroz hilko zuten Iñaki Etxabe, tabernako ugazaba).

"Kanpazarrekoaren ostetik aler-tan geunden. Amari ere esan nion, "Prest egon, zeozer pasauko jaku-eta!". "Zer eitten jjabien, ba?", gure amak. Nik esan nion kristalak apur-tu eta holakoak egiten zituztela, ez bainuen ama larregi arduratzerik gura. Aitari txintik ere ez genion esan".

Maiatzaren 12an etxera joan zitzaitzien Guardia Zibilak. "Uniformedunak etorri ziren orduan. Armen bila zetozela eta etxea errejistratu behar zutela. Ez zuten ezer eroan, jakina, baina nik uste bonba ipini au-retik gauzak nola zeuden jakin guran etorri zirela. Azken batean, gu euren-tzat zaindu beharreko jendea ginen".

## Maiatzaren 13an, leherketa

“Egun horretan, gaueko azken orduan agertu ziren Guardia Zibilak. Taberna 11etan zarratu behar genuela agintzera zetozent. Zergatik? Eurek esaten zutelako, eta punto. Batu beharrekoak batu eta 12etarako etxean ginen, hortxe, tabernaren parean, hirugarren solairuan. Asuntuari ez genion usain onik hartzen eta leihotik begira egon ginen. Atzerra eta aurrera bueltaka sekreten kotxe hori, ondo ezaguna zen kotxea-eta. Gero, eliza kontratik txistu hotsa batek, beste aldetik beste baten erantzuna, kotxea barriro... Halako batean pentsatu genuen ohera joan behar genuela, alperrik zela leihotik begira egotea. Sartu bai ohera, baina ezin lorik hartu. Goizaldeko 01:30ak aldera izango zen berriro kotxea aditu genuenean. Handik gitxira, leherketaren danbatekoa. Argi denak isiotu eta tabernara bajatu ginen arrapalada batean.

Laster agertu ziren uniformedun Guardia Zibilak eta kalekoz zebiltzank. Gogoan daukat oraindik teila koloreko traje bakero bategaz ze-

### “Egun horretan gaueko azken orduan agertu ziren guardia zibilak”

goen bat. Nik propaganda neukan ezkutatuta tabernan, Herri Gaztedikoa, eta barrura sartu gura nuen hura ateratzen. Kalekoz zebilen batek esan zidan kontuz ibiltzeko, lehergailu gehiago egon zitekeela, “pues te quedas a mi lado, y si explota, volamos todos”, bota nion. Sartu gineng, bada, eta ni neure papelon arduragaz. Eurak, ostera, armak topatu guran zebiltzan. Nik neureak ateratzea lortu nuen eta bakea”.

Goizaldean aurrerago, bostak edo seiak aldera, Hidalgo kapitain ospetsua ere agertu zen. Ea nor izan zen tabernatik urtetan azkena galdu zuen. Gure aitak, blaust, esan zion



Guardia Zibilak izan zirela urtetan azkenak, taberna zarratzen eterri zirela. Beste Guardia Zibil batek kargu hartu zion aitari esanez ea zelan esan zuen GuardiaZibilek jarri zutela lehergailua. Gure aitak, berri, berak ez zuela esan nork jarri zuen lehergailua, ezpadaze, nor izan zen tabernatik urtetan azkena. Hori galdu zutela. Ez zen gure aita, holan eta holan, kikilduko.

Tabernaren erdian zegoen haganen inguruan metro bateko zirkunferentziako zuloa egin zuen lehergailuak. Badirudi korrika eta presaka ibili zirela eta euren lehenengo as-

**“Kalteak handiak izan ziren baina taberna ez genuen egun bakar batez zarratu”**

moa frigorifikoko haizagailuaren ondoan jartzea izan zela ze, legatzak eta lurretik zeuden. Ez leherketaren eraginez, txiki-txiki eginda egon ziratzekeen bestela. Oso-osorik zeuden denak.

Kalteak handiak izan ziren. Eraikuntza bera ere ez zen batere onto egindakoa. Burdinazko T handi bat sartu behar izan genuen alderik alde. Hori bai, taberna ez genuen egun bakar batez ere zarratu. Zelan-halan txukundu, eta biharamunean zabaldu egin genuen berri”.

### Elkartasun handirik ez

Halako gertakari bortitzaren ostean ez zen eraikuntza izan ikututa geratu zen bakarra. Jasotako elkartasunaz galdetuta keinua okertzen zaio Itziarri. “Pentsatu genuen jendearen aldetik egon zitekeela ekimenen bat esku bat botatzeko, baina ez zen halakorik gertatu. Gertu-gertukoak bai, jakina, horiek urreratu ziren. Baita fundiziok-eta egunero bazkaltzen etortzen zen jende arrunta. Baina Atxondon, Martzaatik gora,



2

zero. Espero genuen zenbait jende ez zen pote bat hartzera ere geratzen, hori horrela da. Beldurra izango zen? Gurekin identifikatzearren kezka hori?... Ez dakit. Egia da, bestalde, espero ez genuen tokitik ere luzatu

geratu ziren marko eta burdinak zuzentzen!"

Erakundeen aldetik ere ez zuten laguntza keinurik jaso Itziarrek eta etxekoek. Salaketarik jarri ote zuten galdetzerakoan barre etsia egin du. "Salaketa non? Kuartelean?... Gure aitak esaten zuen haiak "carta blanca" zeukatela eta, derrigorria ezean, hoba zela hara ez joan. Azeriari oiloengatik galdetzea legez litzateke".

Eta bonbaren ostean, presioak jarraitu zuen? "Tabernaren bueltan zuzenean, beharbada, ez, baina gure aita, gero ere, asko estutu zuten. Lanetik gabez atera eta polizia sekretaren autoarekin jarraitzen zioten, parean geratu eta, bat-batean, frenatu igoal... Txarto pasatu zuen. Momentu batetik aurrera nire

koinatua joaten zitzaion bila, eta 63 urtegaz jubilatzeko esan genion, ez zuela merezi halako esturatan ibiltzerik".

1975eko maiatzaren 13ko goizalde hartan, Apatako Gazteleku taberna ez zen izan lehergailu bat zartatu zen bakarra. Durangoko Goienkaleko Gure Kabiya tabernan ere jarri zuten, baita Mundakako Atxurra tabernan ere. "Gu joan ginan, bai Gure Kabiakoekin eta bai Mundakako Atxurra koekin egotera ere". Apata, Durango eta Mundaka, hirurak ere Hidalgo kapitaina-ren eragin eremuko herriak, haren ardura baitziren Lea-Artibai, Durangaldea, Zornotza, Gernika eta Mungiako kuartelak. Ezin esan bere lanean enpeinurik jarri ez zuenik zorigaitzoko Hidalgok. Bera zen beti urtetan azkena.

## **"Gu joan ginan, bai Gure Kabiakoekin eta bai Mundakako Atxurra koekin egotera ere"**

zigitela eskua. Jesus Garcia-Ariñok kristalak koste prezioan jarriko zizkigula esan zigun. Zornotzako abertzale batzuk ere, zenbat ordu ez ote zituzten egin oker-oker eginda

2 Itziarren gurasoak eta familiako kide batzuk tabernaren aurrean.



# GURE KABIYA: “El bar de los pajaritos”

Goienkaleren erdi aldean, han dago oraindik *Gure Kabiya* taberna. Jesus Bilbaok, *Charly* legez ezagunagoa berau, eta Josefi Izacelayak zabaldu zuten hirurogeiko hamarkadan. Bertako patata tortilla bezain ospetsua zen euskarazko musika entzuteko aukera ematen zuen *sinfonola*. Ez zen guztien gustuko nonbait, 1975eko maiatzaren 13an jakingo zuten hori.

Josefi Izacelaya (Durango, 1932) eta haren hiru seme-alabekin (Josu, Idoia eta Asier) batu gara *Gure Kabiya* tabernaren historiaz berba egiteko. Jesus *Charly* Bilbao aita falta da, 2003an zendu zena. Izan ere, *Gure Kabiya*, besteak beste, familia baten historia ere bada, eta izena bera ere hortik datorki, Josefik kontatzen duenez. “Nire senarra 11 urtez egon zen Ameriketan, artzain. Euskal Herrira etorri, ezaupidea egin eta ezkondu egin ginen. Berak beste urte bi bete behar zituen Ameriketan bertako nazionalitatea lortzeko, kontratua bete eta amrikano egiteko. Esan nion itxarongo niola, baina etortzeko bueltan, ha-

ren lehenengo umea izango zena neramala sabelean”. Ameriketan bi urteok egin eta hango paperak lortuta, itzuli zen *Charly*. Bi urte zituen Josu semeak aita ezagutu zuenean. “Aitaren asmoa zen, behin nazionalitatea lortuta, familia Ameriketara eroatea. Ordurako kapataza zen, eta egoera hobean zegoen han, baina amak ez zeukan harako gogorik, ezta, ama?”. Josefik ondo gogoan du senarrari esandakoa “Ameriketan be txakurrak ortozik ibiliko dira. Eta egin behar duguna da, hemen, andra-gizonak alkar hartuta, seme-alabekin batera, geure habia egin, eta bizimodua aurrera atara”.

## Gure Kabiya.

*Charly*ren arreba batek Txoko taberna muntatu zuen Durangon eta beste batek Eibarren, Untzaga plazan Kaiku izenekoa. Josefik astebeteko egotaldia egin zuen Eibarren tabernako funtzionamenduaz ikasteko eta, *Gure Kabiya* zabaldu zutenean ere, ez zitzaien Eibarko familiaok laguntzarik falta izan. 1965eko irailaren 9an, Arantzazuko amaren egunarekin, ireki zituen ateak *Gure Kabiya* tabernak. “Hasieratik egon zen giro euskalduna tabernan. Familia karlista batean sortutakoa naiz baina euskalduna, eta egin nuen gehiago gizonaren aldera. Gizona



izan nuen balientea". Garai berri bat ten hasiera ere aipatzen dute, bestelako gazte belaunaldi berri batek hartu zituela kaleak. "Neskak hasi ziren tabernetara sartzen, neskaz osatutako koadrilak. Ordura arte gizonen eskuistik joan ohi ziren-eta", dio Idoiak. Laster hartu zuen tabernak martxa eta haren euskalduntasunak izango zuen zerikusirik, noski. "Barra gainean zegoen ohola ere famatua zen, txoritxo haien marrazkia zuena eta bertso bat bertan idatzita (2. argazkia)". Leopoldo Zugaza zenak

### **"Laster hartu zuen tabernak martxa eta haren euskalduntasunak izango zuen zerikusirik"**

ere asko lagundu ziela gogoan du Josefina. "Taberna zabaltzerakoan Ibarrolaren grabatu bi eman zizkigun opari. Markoa ipini eta eskegi genituen, baina bai kendu ere. Horietako batean agertzen zen mendia gauez, eta gudariak izan zitezkeen figura batzuk, edo antzeko zerbait. Orduan dena zen debekua. Aurrerago berriro ipini genituen eta hortxe egon ziren luzaroan".

### **Sinfonola**

Ez ziren asko izango orduan, Durangon, musika entzuteko aukera ematen zuten tabernak. *Gure Kabiya*ko sinfonola ospetsua zen. Ez bakarrik txanpona sartu eta bezeroak musika aukeratzeko modua zuelako, ezpadaize, euskarazko musika aukeratzeko modua ematen zuelako. Josefí arduratzen zen horretaz. "El Corte Inglés era joaten nintzen euskalazko musika erostera. Han egoten zen neska bat laguntzen zidana, berritasunak zein ziren esanez. Hogeita hamar singleren aukera ematen zuen sinfonolak, eta guk euskaraz geneukan guztia sartzen genuen". "Ez dok Amairu, Pantxoa eta Peio... Itziarren semea, Lepoan hartu... Zenbat buelta ez ote dute eman horiek sinfonolan!", Idoiaren berbak dira. Emango zituzten, bai, buelta batzuk disko

txiki haiet ze, Asierrek dioenez, "Kalekoz jantxitako Guardia Zibilak joan zitzakion aitari esanez euskarazko musika larregi zeukala sinfonolan". "Que no puede tener más canciones en vascuence que en castellano, que está prohibido y que algún día va a tener un problema", gehitu du Idoiak.



"Eta ez hori bakarrik, esan zioten, baita: "y las pintadas que tiene en el baño, esas pintadas también le van a dar un problema". Aitak begiratu eta esan zion Guardia Zibilar: "¿Cómo sé yo que no las ha hecho usted?". Zenbat bider ez ote genituen amak eta biok garbitu komuneko ateak! Egia esan, alperrikako lana ze, hurrengo asteburuan berriz agertzen ziren aldarrikapenez beteta!".

### **El Rubio**

Tabernan sartu-urtena egin orduko iritsi gara gaira eta agertu da Brigadillako kide bat: "El Rubio asko etortzen zen tabernara, kalekoz jantzita. Nik hasieran ez nekien nor zen, beti kariñoso... Winstona saltzen genuela ikusten bazuen esaten zidan ezkutatzeko, eta kontuz ibiltzeko, isunajarri ahal zidatela. Aholkuak ematen zizkidan, oso era atseginean". Etxekoek argi daukate Brigadillako Guardia Zibilaren forma atseginek bazutela bestelako asmorik. "Zure konfiantza lortu gura zuen, ama. Aitarekin baino errazagoa izango zela pentsatuko zuen", bota du Asierrek. Baiezkoan dago ama. "Behin Sanfaustoko mutil batzuk esan zidaten: "Josefi, tenemos que hablar en serio". "Zer dala-ta?", nik. Ibiltzeko kontuz tipo horregaz, polizia zela. "Ese nos ha dado buenas palizas".

### **"Guardia zibilak joan zitzakion aitari esanez euskarazko musika larregi zeukala sinfonolan"**

Izan ere, hirurogeiko hamarkadarren amaiera eta hirurogeita hamarrrekoa, garai mugituak izan ziren Durangon ere. Elkarrizketatzaleetako batek, Anboto, Guria eta Gure Kabiya tabernak aipatzen ditu, besteak beste, sasoiko gazteentzako taberna jator legez. "Manifestazioetan, polizia agertzen zenean, jendea aurreko atetik sartzen zen eta guk atzekoa zabaltzen genuen, karkabatik ihes egin zezaten", gogoratzen du Josefina. Asteburueta, batik bat, jendetza ibiltzen zen. Goizean mendira joan eta, eguerditik gehiago, atzera-aurrera handia izaten zen. "Apal batzuk genituen tabernaren izkina batean. Jendeak han uzten zituen motxitak eta arropak trago batzuk hartzera joateko". Apal haietan ez zen arropa bakarrik lagatzen, ordea. Garaiko propaganda klandestinoa

1 Gure Kabiya tabernako sinfonola.



ere uzten zuten bertan. "Propaganda asko" dio Josuk, "Han, arropa artean, beti baziren paperak". Etxekoek bazekiten eta Montorretako kuarterlean ere usaintzen zuten. Kalean zebilen jendearentzat ere ezagunak ziren *Brigadillakoak*. Euren presentzia egunerokoa zen, batzuetan agerikoa eta bestetzutan ez hainbeste, Idoiak goigoan duenez: "Tía Charitok tabernako sukaldetzen zuten. Tabiran bizi zen eta, behin, ondo gabaz, Santanako arkuaren inguruan horietako bi agertu zitzakion ilunpetik, ea propagandarik bazeroan poltsan. Susto itzela hartu zuen. Harrezkero aitak lagundu zion gauero Tabirara".

### Bonba lehertu zen.

1975eko maiatzaren 13an jarri zuten lehergailua *Gure Kabiyan*. Halako ezer gerta zitekeelako susmorik ba ote zuten galdetuta, ezezkoa da erantzuna. "Pentsa. Gu tabernaren gaineko pisuan bizi ginen. Gurasoen logelak justu beste aldera ematen zuen. Entzun zuten zerbait, baina pentsatu zuten bonbonaren bat izango zela. Etxea lotarako bakarrik erabiltzen genuenez, bizitza tabernan egiten genuen, eta ez geneukan ezta bonbonarik ere! Auzokoak eterri ziren tabernan leherketa izan

zela esatera. Sorpresa itzela izan zen".

Goizaldeko hiru t' erdiak edo laurak inguruau izan zen leherketa. "Barrera gaur egun dagoenaren aurrez-aurre zegoen, justu beste aldean. Kaletik gertuen zegoen barraren ertzean izotz makina zegoen eta haren motorrean jarri zuten lehergailua. Eskerrak han jarri zuten, bestela txikizioa handiagoa izango zen", Asierrek dioenez. Edozelan ere, taberna guztia apurtu zuen, barrako ohola izan ezik, "Gaur egun, oraindik ere, han dagoena". Gurasoak segidan jaitsi ziren tabernara eta lehenengo lana nahinon barreiatuta zegoen



**"Eguna argituta agertu ziren guardia zibilak, galdu egin zirela bidean"**

propaganda batza eta desagerraztea izan ei zen.

Eguna argituta agertu ziren Guardia Zibilak. Ordurako, familia ezeze, herritarrauk ere bilduak ziren tabernaren bueltan. "Guardia Zibilek barkamena eskatu zuten berandutzeagatik, galdu egin zirela. Esan egin behar da, gero! Aita ere ez zen isilik geratu, baina. "¿Ahora venís por segunda vez?" bota zien". Guardia Zibilekin batera Hidalgo kapitaina agertu ote zen galdetuta, Josefina ez dauka haren akordurik. "Alkatea bai. Amorrortu Guardia Zibilak baino lehenago eterri zen. Lasai egoteko esan zigun, herriak bazekiela zelako jendea ginan".

### Nork jarri zuen bonba?

Triple A erakunde parapolizial faxis-tak aldarrikatu zuen aurrerago *Gure Kabiya*ko erasoa. Etxekoek ez dute zehatz gogoratzen hala izan ote zen. *Batallón Vasco Español, Guerrilleros de Cristo Rey...* Izena zen gutxienekoa. "Taberna geneukan ion-jaren jabea pareko etxeen bizi zen,





2

Panadera Txikita deitzen ziotena. Goizaldero, bere hiru txakurrekin kanposantu aldera paseatzera iriteteko ohitura zuen eta hark esan zuen ikusi zuela norbait tabernan sartzen” gogoratu du Idoiak. Urtee-

## **“Durangoko taxista batek ekarri eta eroan ei zituen bonba jarri zutenak”**

tara bestelako informaziorik ere iritsi zaie. “Durangoko taxista batek ekarri eta eroan ei zituen, Bilbotik, bonba jarri zutenak. Lehenengo Apatara joan ei ziren, eta gero gurera. Hori da esan izan digutena”. Taxistari karrera zeinek ordaindu zion jakitea falta. Baino 1975a ez zen galderak egiten hasteko garairik egokiena, eta familiakoen artean igartzen denez, behin honezkero, bakearen izenean San Antoniori errezu batzuk, eta kitto.

### **Elkartasuna**

Taberna txikitzea aski zigor ez eta Josefina ez dauka ahazteko hasierako sentimendu hura “Gu beldurrez, jendearekin berba egiteko ere, ikeratuta. Norberak ezer egin ez, eta gainera errudun sentimendu hori”. Ez dauka gogoan zenbat denbora behar izan zuten taberna berriro zabaltzeko. “Hilabete bat edo... Bost ginen etxearen eta beharra egin behar genuen bizimodu aurrera ateratzeko!”. Josuk dio tabernariak elkarto egin zirela laguntzeko asmoz. “Gastuak ordaintzeko diru-bilketa egin behar zela aipatu zuten hasieran. Baino *Guria* tabernako etxeoandreak esan ei zuen hori ez zela bidea. Egin behar zena zela, tabernara joan, eta gastua egin bertan. Bezeroak mantendu eta herriari adierazi babestu egiten zituztela *Gure Kabiyoak*. Beldurra bezero txarra da-eta”.



3

Herritarrek erantzun ote zuten galdetuta, Josefinarri aurpegia argitzen zaio oraindik. “Ondo ere ondo erantzun zuen jendeak. Lehenago beste eta gehiago hasi zen etortzen. Arrazoia zuen *Guriako* etxeoandreak. Horixe zen bidea”. Guztiak ez ziren, baina, segidan itzuli tabernara. Seme-alabek ama xaxatzen dute anekdota bat kontatu dezan. “Bazen gazte bat luza-roan sartu barik egon zena. Neure semea balitz lez estimatzen nuen. Bera, ostera, kezkatuta zegoen, propaganda asko uzten baitzuen tabernan, eta bonba jarri bezperan ere eskukada utzita zegoen. Sartu zen halako batean. Berba egin genuen, elkarri besarkada bat eman, eta konpondu ginen”.

Idoiak gogoan du salaketa jartzera kuartelera joan zirenkoan. “Ez daukat ahazteko. Nik bederatzi urte nituen eta amaren eskutik joan nintzen kuartelera. Via Crucis baten antzekoa izan zen etxetik harakoa. Hainbestero, ama geratu egiten zen, negarrak irteten zion.

Gero, arnasa sakon hartu eta aurrera. Niretzako oso inpaktu handia izan zen ze, salaketa jartzera gindoazen, jakinik eurek izan zirela bonba jarri zutenak! Nire ume begietatik, gogorra izan zen”.

Bonbaren ostean *El Rubio* deitzen zioten Guardia Zibila ez ei zen gehiago agertu tabernatik. Ohiko bezeroak bai, tartean Josefiri polizia sekretuaren gainean abisua eman zioten Sanfaustoko gazteak. Orduantxe ohartu ziren lehenago ulertu ez zuten zerbai-tetaz. Guardia Zibilek atxilotu eta jipoitzen zituzten bitartean, behin eta berriz galdeztzen zieten: “*¿Qué hacéis en el bar de los pajaritos?*”. Eurek, harrituta, ez zutela taberna hori ezagutzen erantzuten zuten. Ondorioz, egurra bortitzago goitik behera. Bonbaren ostean, taberna barritzatu zutenean, barra osteko ohol margotuari begira geratu ei ziren, non txoritxoak ageri ziren eta “*Txoritxoa nurat hua...*” bertsoa. “*¡Hostias! ¡Este era el bar de los pajaritos!*”.

2 Jose Ignacio Andreu Uriarte margotu zituen *Gure Kabiyo* oholak.

3 Agustin Ibarrolaren grabatua. Leopoldo Zugazak *Gure Kabiyo* egindako oparia.



# **“¿Conoce usted al Capitán Hidalgo?”**

Marisak maistra izan gura zuen umetan baina Comercio ikasi zuen hamabost urterekin beharrean hasteko. Etxetik zekarren abertzetasunari kezka soziala eta feminista erantsi zizkion lan munduan barneratzeak. Joan den mendeko hirurogei eta hirurogeita hamarreko hamarkadan kezkak izan eta adierazteak bazituen bere arriskuak. Arrisku horrek Hidalgo zuen abizena.





### **Maistra izan gura zuen neskatoa hamabost urterako idazkari lane-tan.**

Umetatik nekarren maistra izateko ametsa. Kontua da hautua egin beharreko garaian gure etxearen ez geundela onenean. Aita langabezian zegoen, beraz, Comercio ikasten hasi eta EKIN kooperatiban hasi nintzen beharrean.

Laurogei bat gizon eta hiru emakume ari ginen beharrean, hirurak bulegariak, noski. Gizonezkoak koo-peratibako bazkideak ziren guztia, baina emakumeok ez geneukan horretarako eskubiderik ere. Hori gutxi ez eta gizonezkoek baino askoz soldata txikiagoa genuen. Horburuak egin zidan klak! Batetik klase kontzentzia dago baina, bestetik, emakumea izateagatik azpiratua egoteaz jabetzea ere. Argi bat pizten zaizu bat-batean.

### **Argi asko pitzu ziren hirurogeiko hamarkadan.**

Mugimendu handia zegoen, bai politikoki eta bai sozialki. Mugarri bat jartzekotan, Txabi Etxebarrietaaren

hilketa aipatuko nuke (1968ko ekainaren 7a). Horrek kontzentzia asko mugiarazi zituen. Gogoan daukat Bilboko San Antongo elizan egindako hileta eta itxialdia. *Surti* deitzen zioten abade bat zegoen han, oso implikatua bera. Handik gutxira Burgosko Prozesua etorriko zen baina, esango nuke, lehenengo kolpe handia Txabirena izan zela.

### **“Txabi Etxebarrietaren hilketak kontzentzia asko mugiarazi zituen”**

### **Bestelako abade batzuen garaia ere izan zen.**

Begira, gurean, osaba fraideak izan arren, ez aita ez ama, ez ziren bereziki elizkoiak izan. Geu ere ez, baina garai haietan Periko Berrioategorta zegoen Zornotzan abade, Don Pedro orduan. Ba, domekaro, Euban trena hartu eta Perikoren sermoia entzutera joaten ginen. Abade lan-gileen mugimenduan zebilen Periko,

eta euskaltzalea ere bazen. Eliza to-peetaraino beteta egoten zen haren sermoia entzuteko. Bazeukan halako energia bat, indar bat!

### **Zer giro zegoen Zornotzan?**

Mugimendua eta protesta bazeagoen. Alkatea ere halakoxea geneukan, Agustin Uria, Cartucho, errejimenekoa baino errejimenekoagoa. Diktaduraren kontrako guztia klan-destinoa zen eta horrek, bazuen halako zer bat, orduan pentsatzentz bai-kenuen mundua aldatuko genuela. Beste alde batetik, ordea, kezka eta beldurra ere bazeuden. Txibatoen beldur handia izaten zen. Zornotzan bazeuden oso ezagunak zirenak, manifestazioa atera orduko kuarterlera bidean ikusten zenituenak, “Han doa halako!”, esaten genuen. Baina hain agerikoak ez zirenak ere izango ziren, eta horren ardura guk.

Batzar kontuak mendian egiten genituen. Orduan oso ohikoa zen mendira joate hori, disimuluan pasako ginelakoan-edo. Zornotzakoak joango ginen Urkiolara eta Durango-koak ez dakit nora. Hurrengo batean



guztiok batera halako tokitan, bakotza bere bidetik joanda... Izango zen, ezagutzen ez genuen jende eta mugimendurik, jakina, baina zenbatzen hasita, ez ginen hainbeste.

### **Euskaltzaletasuna ere aipatu duzu lehenago. Zure kasuan, etxetik zetorren, ezta?**

Bai. Ume umetatik akordua dut gure amak ahots-goran irakurtzen zizkgula bai Karmel eta bai Arantzazu aldizkariak. Lehenago aipatutako osaba horietako bat karmeldarra zen eta bestea frantziskotarra, beraz, gurean beti jaso izan genituen euskarazko aldizkariok. Amak beti esaten zigun: "Etxeko atetik kanpora gura dozuena, baina hemen barruan, euskeraz".

Retolazak-eta umeentzako *Kili-Kili* aldizkaria sortu zutenean laguntzea eskaini zidaten. Etxean euskara lantzeko fitxa batzuk banatzetan genizkien umeei eta gero batu, holako gauzak. Ez zen lan handia eta gustura egiten nuen, nik eta beste hainbatek. Behin, Derioko seminarioan egin genuen batzar batean fitxatu egin gintzuten guztiok eta Durangoko guardia zibilaren kuartelera joan behar izan genuen deklaratzena. Gogoan dut gerora Hitz Liburu denda izango zuen Nekane Bereziartua ere han zegoela. Galdera batzuk baino ez ziren izan, baina orduan ere ez zen gozoa kuardeletik pasatzea.

### **Umeekin bakarrik ez, zeuk ere jo zenuen Durangoko Gau Eskolara.**

Kilik-Kilin umeen fitxak jaso eta zuzendu egiten genituen, eta pentsatu nuen ondo zuzentzeko neuk ere ikasi egin beharko nuela. Ordurako Euban bizi ginen, Erkolesen. Zornotzan bazeugoen talde txoren bat Aita Santi Onandiaren inguruan, baina Bernako lagun batek esan zidan Durangon alfabetatze kanpainak egiten ari zirela. 1971 bueltan izango zen. Jesuitan ematen zituzten eskolak eta nire lehenengo irakaslea Juan Antonio Aroma izan zen. Juananek eta Kristina Mardarasek ematen zituzten alfabetatze ikastaroak, eta Eskarne Aromak eta Jose Antonio Azkorbebeitia euskalduntzeakoak.

Ikasturte bat egin eta hurrengorako irakasle ari nintzen, pentsa. Juanan Aromak beti izan du jendea inplikatzeko gaitasuna.

### **Zein zen orduko euskara ikasleen perfila?**

Lehenik eta behin, azpimarratuko nuke itzelezko motibazioa zegoela. Batzuk euskal hiztunak ginen baina alfabetatu bakoak. Bestetzuk, ostera, hutsetik edo ia hutsetik hasten ziren euskalduntzen. Izen zen hutsetik hasi eta eskolak ematen amaitu zuenik ere. Atera kontuak hortik motibazioa zelakoa zen ze, geneukan materiala ere halakoxea zen!

### **Gau Eskolak bazeukan ezelako lege babesik?**

Legezkoak ez ziren izango baina Euskaltzaindiaren babesak bazuten. Irakaslek baguen Euskaltzaindiaren agiritxo bat ere. Tamainako balioa izango zuen, baina esan gura dizut Gau Eskolak ematerakoan ez genuela ezkutuka ibili beharraren zera hori. Jesuitek ere, hau esan beharra dago, oso eskuzabal jokatu zuten. Ikasgeletako giltzak geneuzkan eta geure erara ibiltzen ginen han. Gelak txukun uztea izaten zen gure konpromisoa.

### **Garai hartan ezkutuka ibili behar ez izatea bazen zerbait.**

Tira, Jesuitatik irten eta Kurutzaga kalean sarri ikusten genituen brigadillakoak: Moro, Anta, Rubio... Gau Eskolan genbiltzan askok bagenituen geure militantiak eta abarrak, baina esango nuke ondo bereizten genituera bata eta bestea. Kontua da Durangon oso presente zeudela beti horrek sekretok, guretzat eta mugitzen zen edonorentzat.

### **Gau Eskolatik irteterakoan atxilotu zintuzten zu.**

1975eko uztailean izan zen hori. Ordurako autoa neukan. Gau Eskolatik irten eta aitaren bila joaten nintzen Zornotzara, zaindari legez behar egiten zuen fabrika batean. Eubatik etxerako bidea hartu genuenean, argi handi batzuk sumatu nituen

atzean, "guardia zibilak dira", esan nion aitari. Eta nik baneukan neur pekatutxoa, biharamunean multikopista botatzeko klitxea prest baneukan etxeen. Baserri aurrean utzi autoa, etxeen sartu, klitxea apurtu eta komunetik behera botatzeko denbora eman zidan. Guardia zibilak etxe inguratzen ibili ziren, antza. Komunear behera joan zenean jo zuten atea. Konprometituak izan zitezkeen liburu batzuk gurean zegoen osaba fraideari eman nizkion bere gelan gordetzeko baina Buletinak ezkutatzeko modurik ez nuen izan.

### **"Etxean sartu, klitxea apurtu eta komunetik behera botatzeko denbora eman zidan"**

### **Zer ziren Buletinak?**

1975eko apirilaren 25ean Salbuespen-egoera ezarri zuten Bizkaian eta Gipuzkoan. Salbuespen-egoera horrek polizia indarrei nahieran jokatzeko modua emateaz gainera, informazioaren gaineko kontrol handia ezartzen zuen. Hori zela eta klandestinoki publikatzen hasi ziren *Noticias del País Vasco*, *Boletín Informativo* delakoa. Atxiloketen eta torturen barri ematen zuen, alde batetik. Bestetik, segurtasun arauak ere azpimarratzen zituzten: buletinaren hiru ale baino gehiago ez izateko Propaganda illegal litzatekeelako; argazkiekin kontuz ibiltzeko, jende asko jausten zela argazkietan indentifikatuta... Horrelako gauzak. Asko zabaltzen zen buletin hori, eskuz esku. Zuk bazenekien nork pasatzen zizun eta nori ematen zenion, kitto. Zenbat eta gitxiago jakin, hobeto.

### **Eta aurkitu zizkizuten buletinok.**

Hankaz gora jarri zuten etxea. Osaba fraidearen gelan sartzen ere joan ziren baina harek, "Soy religioso, aquí no pueden entrar" eta, nire harridorako, errespetatu egin zuten. Pentsa, gure ama Eva Foresten liburu bat irakurtzen ari zen eta kortan, zerrautek artean ezkutatu zuen. Baina Buletinak bai, aurkitu zituzten. Edozelan ere, banekien hiru nituel aina

hirurak ezberdinak, beraz, lehen esan dizudan moduan ezin zidaten Propaganda ilegal leporatu, teorian. Edoze lan ere, atxilotuta nengoela eta kuartelera joan behar nuela.

### Zornotzako koartelera?

Bai, hango guardia zibilak zirelakoan nago, unformatuak. Aitak esan zien nirekin joango zela eta onartu egin zioten. Esan dizut zaindari legez egi ten zuela beharra eta soinean zeroan uniformegatik, halako autoritate itxu irragatik-edo, onartu egin zioten. Pentsa zeinen bitxia zen egoera, koartelera neure autoan joan ginea la. Neu gidatzen, aita ondoan, eta atzean guardia zibila.

Auto gorri txiki bat neukan sasoi hartan eta, neurekiko pentsatzen nuen, kuartelaren aurrean aparka tuta utzita, jendeak laster jakingo

